

## **BEZEROEKIKO HARREMANA**


Gure enpresaren bezeroekiko harremana oso garrantzitsua izango da, taberna eta jatetxeak gurekin kontaktuan jarri beharko direlako gure zerbitzua erabiltzeko.

Hurrengoak izango da gure bezeroekin izango dugun harremana eta zerbitzuaren prozedura:




Lehenengoz, lokal bat alokatu beharko dugu bertan gure bulegoa edo zentrala izateko. Jatetxe eta taberna ezberdinetako jabeak gure enpresaren zerbitzuetara harpidetu ahal izango dira; gure bezeroak harpidetzen diren tabernen eta jatetxeen bezeroak izango dira.

Ondoren, gure zerbitzuaren harpidetudunek (jattetxeak eta tabernak) beraien bezeroak egiten dizkieten eskaerak helarazi beharko dizkigute guk gure zerbitzuak martxan jartzeko. Jattetxeek eta tabernek euren lokalaren ubikazioa eta baita bezeroaren etxearena bidali beharko digute, guk droia nora bidali behar dugun jakiteko. Horrela, gure zerbitzuak martxan jarri ahal izango dugu.



Ubikazioak bidali eta datuak eskuratu ostean (bezeroaren telefono zenbakia, etxeak ea balkoirik duen, etab.), taberna eta jatetxeetako jabeek, beren bezeroak eskatutako produktua kutxa batean sartu behar izango dute eta jatetxearen atearen kanpoaldean utzi, gure droiak paketea batu dezan. Horrela, droiak bezeroaren etxera garraiatuko du paketea, eta helmugara heltzerakoan, etxearen balkoian edo edifizioaren atean utziko du paketea. Balkoiak duena, balkoira iritsiko zaio paketea, eta balkoirik ez duena, ordea, edifizioaren portaleko atera jaitsi beharko da paketearen bila (droiak, hurbiltasun-sensore batez, kontu handiz utziko du paketea lurrian edo balkoian). Droia helmugara ailegatzeko gutxi falta zaionean zentraletik bezeroari deituko zaio, balkoira edo edifizioaren atera jaitsi daiten.



Bezeroak zerbitzua ordaintzeko moduari dagokionez, bezeroak jatetxeari ordaindu beharko diola Paypal edo kreditu- txartelaren bidez. Beraz, bezeroek ez digute guri ordaindu beharko; jatetxeak ordaindu beharko digu produktuaren prezio finalaren ehuneko bat eta harpidetu egiten diren momentuan ere.